

Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

ZINEMA

El déspota

Asteazkena | 20.00etan

David Leanek txuri-beltzean egindako azken filma dugu, El déspota inflexio puntua izan zen zuzendariarentzat, britaniar produkzio txikiak alde batera utziz eta produkzio handietan murgilduz.

Zuzendaritza : David Lean

Penitencia

Nafarroako Filmoteka

Osteguna | 20.00etan

Aurkezpena eta solasaldia dokumentalaren sortzaileekin izanen da.

Dokumental honek gizartean erreflexio bat sortu nahi du. Esklusio eta ezberdintasunez betetako gizarte zigortzailea, horretan geratzen da, ez du besterik egiten, ez ditu pertsonen bizitza oparo bat bizitzeko tresnarik ematen.

Zuzendaria: Pili Múgica eta Raúl Montes

El tren de sal y azúcar

Nafarroako Filmoteka

Ostirala | 17.30 eta 20.00

Zibilez eta militarrez betetako tren batek Mozambike zeharkatzen du guda zibila bitartean. 1977. urtetik 1992. urtera iraun zuen gerla hartan herrialdea guztiz suntsitu zen.

Zuzendaritza: Licinio Azevedo

KONFERENTZIAK

Orain pentsatu, mundua pentsatu

Nafarroako Liburutegia. Proiekzio Aretoa

Astelehena | 19.00etan

Hizlaria: Arturo Leyte

Izenburua : "Heidegger: hizketa ezinezkoa".

Sarrerak doan eserlekuak agortu arte

Trantsizioak

Nafarroako Liburutegia. Proiekzio Aretoa

Asteartea | 19.00etan

Hizlaria: Soledad Becerril

Izenburua: "Años de soledad"

Sarrera doan eserlekuak agortu arte

Soledad Becerrilek bere memoriak aurkeztuko ditu Nafarroako Liburutegian. "Años de soledad" izena duen lanean bildu ditu Becerrilek bere oroimenak: 1977 hauteskunde orokorretan hautatutako 21 emakumeen artean egon zen; ministro bezala izendatua izan

zen lehen emakumea izan zen, 1981. urtean; eta Sevillako udaletxean izan zen lehen emakume agintaria ere bai, 1995. urtean.

Musika eta giza eboluzioa. Historiaurretiko kontaketa.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

“Zientzien Hotsak” zikloa

Asteazkena | 19.00etan

Hizlaria: Concepción de la Rúa

Concepción de La Rúa erreferentea da estatu mailan, eta nazioarteko proiektu handia du. Gaur egun, antzinako giza espezieen–Cro-Magnon gizakia eta Neanderthal gizakia–genomaren sekuentziazio masiboko proiektu bat garatzen ari da, eta bere taldea eguneko ikerkuntzaren abangoardian dago.

Francisco Navarro Villosladaren inguruko mintzaldia

Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa

Osteguna | 19.00etan

Hizlaria: José Andrés Álvaro Ocáriz

Izenburua: Francico Navarro Villosladaren inguruko mintzaldia

Sarrera doan eserlekuak agortu arte

Amatxok txirikordak zeramatzanean liburuaren aurkezpena

Nafarroako Liburutegia. Haurrentzako Aretoa

Larunbata | 12.00etan

Hizlaria: Concha Martínez Pasamar

Izenburua: “Amatxok txirikordak zeramatzanean”

Sarrera doan eserlekuak agortu arte

Concha Martínez Pasamarrek bere azkeneko liburua aurkezten du, “Amatxok txirikordak zeramatzanean”.

LANTEGIAK

Dossier on bat Nola prestatu

Uharte Zentroa

Astelehen eta asteartea | 16:00etatik – 19:00etara

948 Merkatua Tailerra

Arduradunak: Mikel Cabrerizo / Lara Molina

Balioa: 10 euro

Lantegi praktiko honetan, zure lana eta proiektu artistikoak hedatzeko tresna gisa landuko dugu dosierra. Artistaren dosierra, artearen munduko profesionaleri zure lana erakusteko tresnarik garrantzitsuenetako da. Lantegi honek, zure lana, instituzioetan, deialdietan, sarietan, festibaletan etab. nola aurkeztu erakutsiko du.

Paisaiaren memoria / Zero azpitik

Huarte Zentroa

Asteazkena - Ostirala | 15:30 - 19:30

Artista: Jon Cazenave

Lantegi honek paisaia gure biografiari estuki lotutako argazki subjektu gisa planteatzen du: irudiekin kartografiatzen dugu inguratzen gaituen mundua gure testuingurua ulertzeko eta horrela zer garen definitzen dugu. Lurralde baten argazkiak egitearen ekintzarekin, gure identitatearen mapa bat egiteko helburua duen bide bat abiatzen dugu, horrela, gurea den eta esanahia ematen digun ikusizko imaginario bat egituratzen dugu

Ongietorri ipuinetara
Nafarroako Liburutegia
Asteazkena | 18.00etan

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete hurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Sol y sombra
Huarte Zentroa
19/10/2018 - 02/12/2018
Sortzaileak: Beatriz Sánchez eta Iñigo Cabezafuego

Sol y sombra aurkakoak diren elementuz osatutako edabe hordigarria da, zeinetan baikortasun dosi adina zirikatze eransten den. Emaiza eztenkada galanta da, edari honi ematen zaion izen peto-petoaren berdina.

KONTZERTUAK

Bach-en Suite-ak
Baluarte (Ganbera Aretoa)
Asteazkena | 20.00etan
Musikaria: Asier Polo

Asier Polo, Bere belaunaldiko espainiar txelp-jole nabarmenenetarikotzat joa, Asier Polo Baluarte Fundazioaren 2018-2019 Denboraldi berrian artista egoiliarra izango da. Eta Baluarte Cámara zikloaren bigarren edizio honetan bera izango da hiru hitzordutan protagonista.

BESTELAKOAK

Sakanako Liburutegiak
2018/11/05 - 2018/11/30
Ziordia, Olazti, Altsasu / Alsasua, Urdian, Etxarri Aranatz / Echarri Aranaz, Arbizu e Irurtzun.

Sakanako liburutegiak elkartu egin dira bailarako paisai eta baso ondarea goraipatzeko. Nahi honen harira, hamaika proposamen prestatu egin dira ingurua hobeto ezagutzeko. Hala nola, erakusketak, zinema, topaketa literarioak, poesia, tailerrak, etab. Egitarau osoa esteka honetan bisita daiteke: <http://www.culturavarra.es/uploads/files/sakana2018.pdf>

ERAKUSKETAK

Izaba NANen

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/11/06 - 2018/11/30

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Izaba herriari buruzko agirien aukeraketa zabala prestatu du azaroko mikroerakusketarako. Sarrera librea eta doakoa da eta hauexek dira bisita-ordutegiak: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara asteko egun guztietan, asteburuak eta jai-egunak barne, eta asteazkenetan, 10:00etatik 20:00etara bitartean.

Baxenabarre, lurralde berezia/ Basse Navarre

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)

2018/10/10 - 2019/01/13

Susana Herreros Lopetegik komisariatutako erakusketa hau bi zatitan taldekatutako 16 beira-arasez osatuta dago, eta horietan, esparru txiki eta estrategiko horren bilakaera jarri dute ikusgai, jatorrietatik Frantziako Iraultzaren (1789) ondorioz erresuma bezala desagertu zen arte.

Macla, mamua, bismuto, vicario

Oteiza Museoa

2018/07/27 - 2018/11/30

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: "la Caixa" Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea. Oteiza Museoak "Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

Work in Process

Huarte Zentroa

2018/10/31 - 2018/12/09

Artista: Collaborative Arts Partnership Programme

COLLABORATIVE ARTS PARTNERSHIP PROGRAMME (CAPP) Europako praktika artistiko kolaboratiboen inguruko ikerketa eta hedapenean inguruan dlanean diarduten bederatzi kultura instituziok osaturiko sarea da. Erakusketa honetan, azken hiru urte hauetan CAPP-en testuinguruan egidako proiektu desberdinen prozesu eta emaitzak elkarbanatzen dira.

María del Villar Berruezo

Nafarroako Liburutegia. Lehen Solairu Aretoa.

2018/10/15 - 2018/11/15

María del Villar Berruezo dantzari eta poetaren inguruko erakusketa honetan bere lana eta bizitza gertutik ezagutzeko aukera egongo da.

Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación

Nafarroako Museoa (kapera)

2018/10/26 - 2019/03/24

Dora Salazar (Altsasu, 1963) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultatean ikasitako artista plastikoa da. 1985ean bere lehenengo erakusketak eskaini zituenetik, etengabe agertu da bilduma pribatuetan eta publikoetan.

BISITAK ETA IBILALDIAK

Iruñeko Katedraleko klaustroaren lanak

Iruñeko Katedrala

Igandea. 10.00etan, 11.00etan, 12.00etan

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan.

Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.